



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO!

mendia montagne

Nola berritu Euskal mendiari buruzko anbizio kolektiboa?

Lehen galdera horri erantzun nahi dio Garapen Kontseiluak, Euskal Herria ari denean mendi politika batez hornitzen eta Eskualdeko Parke Naturalaren proiektua lantzen. Parte hartzea sustatu duen mintegi baten emaitza gisa, Garapen Kontseiluaren gogoetek jendearen izariko mendiaren balioak berresten dituzte, eta gizarte proiektu baten eraikitzeko hastapen batzuk proposatzen dituzte.

So ! = begi hets-ireki batean, Garapen Kontseiluaren 2022ko uztailleko mendiari buruzko azken iritzitik gogoan atxiki beharrekoa.

JENDEAREN IZARIKO MENDIA

- Euskal mendia **mendi bizia da, populatua, hurbilerra eta "bere gailurretaraino" landua**, laborantza-artzaintzaren eta bizitza sozialaren dinamismo berrituari esker.
- Mendi hori **Euskal Herriaren arima da**, lurraldearen "erroen" parte da eta **Euskal Herriaren nortasunaren** funtsezko markatzailea. Bizilagunendako espazio eta baliabidea da (izan baserrialdekoak, izan hiritarrak), **ondasun komuna**. **Horren baloreak** partekatu behar dira.
- **Askatasun-eremutzat** harturik ere, haren erabiltzaileek errespetatu behar dituzte **lan-tresna** gisa dutenak. Mendiaren kudeaketa eta praktika **modu kolektiboan** egiten dira eta **kode batzuei** erantzun behar diete; kode horiek transmititu behar dira, jendeari mendian baldintza hoberenetan sartzeko eskubidea bermatua izan dadin, eta ekonomia eta aisialdi jarduerak elkarren ondoan ontsa ibil daitezen.



GIZARTE PROIEKTU BATEN OINARRIAK

Jendea, euskal mendiaren ezaugarri nagusi

- **Mendi bizia**, giza jarduerak moldatua.
- Euskal Herriko **bizilagun guzientzat zentzua** duen mendia.
- Erregulariki partekatu, galdetu, transmititu... beharreko zentzua.

Lehentasuna laborantza-artzaintzari eman behar zaio

- **Mendiaren oinarri ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoa**, haren bizitasunaren eta paisaiaren kalitatearen bermatzaile.
- **Laborantza eta artzaintzako egin-moldeen gainbalioen ezagutzeko beharra**: interes orokor handiko aktibitateak (mendiaren artatzea, elikadura, etab.), kontuan hartu beharreko **erabilera eta balioak**.

Euskal mendiari dagokion garapen eredu

- **Bizi den mendia, eta ez erakusleihu batean dagoena**.
- Jardueren arteko **oreka berriak** atzeman behar.
- **Mendi bat baino gehiagorendako pentsatu mendi proiektu bat**: mendi eta errealitate bat baino ezagutu.

Berritu beharreko proiektu dinamika bat

- Mendia, **laborategi soziala**, tokiko ekimenekoa, molde iraunkorrean ezagutaraztekoa.
- **"Mendi proiektuaren" jabetze kolektiboa**, eztabaida publiko irekiaren bidez.
- **Estrategia eta politiken artikulazioa**, proiektu partekatu baten eta anbizio kolektibo baten zerbitzuko.
- **Tokiko garapenaren zerbitzu an jarri behar den instituzionalizazioa**.





**CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA**

Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.

Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.

Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laboretegia da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.